



INDALECIO OJANGUREN XXXII. ARGAZKI LEHIAKETA 2019

010/2019 ARGIZAIOLA LEHIAKETAREN
SAILKAPENERAKO
BALIAGARRIA

Euskal Herriko Argazkilaritza Federazioaren
Sariak Euskal Herriko argazkilariei.

Eibarko Udalak, Klub Deportiboaren
laguntzaz, 2019ko Indalecio Ojanguren
XXXII. Argazki Lehiaketarako deia egiten du.

+ OINARRIAK

PARTE-HARTZAILEAK

Nahi duten guztiak.

GAIA

Norberaren aukeran.

LANAK

Gehienez ere **3 argazki zuri eta beltzean, eta 3 koloretan**. Inoiz saritu gabeak izan beharko dira.

IZEN-EMATE ESKUBIDEAK

Doakoak.

AURKEZPENA

Lanak 40 x 50 cm.-ko kartulinarekin edo kartoiarekin indartuak aurkeztu beharko dira, eta argazkiak gehienez ere **30 x 40cm.-koak** izan beharko dira. Lan bakoitzaren atzealdean **lanaren izena** zein den azaldu beharko da. **Egile bakoitzak izen berbera jarri** beharko die aurkezten dituen argazki guztiei. Argazkiak hurrenkera jakin batean ikustea nahi izanez gero, **zenbakituta** aurkeztu beharko dira.

Egilearen datuak -izena, abizenak, NAN-AIZ..., posta helbidea eta elektronikoa, telefonoa eta, hala balitz, zein elkartekoa den - **kartazal itxi batean** joan beharko dira, eta kartazala paketearen **kanpoaldean** erantsita. Kartazalean lanen **lema** jarri beharko da.

Lanak helbide honetara bidali beharko dira:

EIBARKO UDALA
KULTURA ARLOA
INDALECIO OJANGUREN XXXII. ARGAZKI LEHIAKETA
PORTALEA - Bista Eder, 10
20600 Eibar

Postaz bidaliz gero, **ziurtaturik** igorri beharko dira eta **gasturik gabekoak** izango dira.

EPAI-MAHAIA

Argazki mailan oso ezagunak diren **hiru pertsonen** osatuko dute. Izenak bere garaian ezagutaraziko dira.

ERABAKIA

Erabakia **jendearen aurrean** emango da eta irekia izango da. Erabakia **ukaezina** izango da eta jakinaraziko da udal web orrialdean,, **www.eibar.eus**.

ERAKUSKETA

Sarituak izan diren lanak **Udalaren Portaleko Erakusketa Aretoan** erakutsiko dira. Gainontzekoen artean ere, batzuk aukeratuko dira ikusgai ipintzeko.

KATALOGOA

Saritutako lanekin katalogo bat argitaratuko da. Bertan, nortzuk parte hartu duten ere azalduko da eta **parte-hartzaile bakoitzari bidaliko zaio**.

LANEN ITZULKETA

Saritzen diren lanak Udalaren esku geldituko dira eta Udalak lanak erabiltzeko eta argitaratzeko eskubideak gordeko ditu, baina hori bai, beti norenak diren aipatuz. **Saritu gabekoak, erakusketa itxi eta 60 egunen buruan** itzuliko dira.

OINARRIAK

- Partaide bakoitzak ezingo du sari bat baino gehiago jaso.
- Antolatzaileek lanak ongi zainduko dituzte, baina ezustean kalteren bat gertatuko balitz ez dute inongo erantzukizunik hartuko.
- Epaimahaiak ahalmena du oinarri hauek ulertzerakoan izan daitekeen ezusteren baten aurrean erabakirik egokiena hartzeko.
- Lehiaketa honetan parte hartzen duenak oinarri hauek goitik behera jarraituko ditu.

EGUTEGIA

Lanak aurkezteko epea: **2019ko irailaren 2tik 27ra**

Erabakia: **2019ko urriaren 5a**

Sari-banaketa: **2019ko urriaren 25a**

Erakusketa: **2019ko urriaren 25etik azaroaren 17ra**

SARIAK

Ohorezko Saria

Argazki bilduma onenari

Koloretan edo zuri-beltzean 500 €, garaikurra eta Portalean erakusketa egiteko aukera.

“Indalecio Ojanguren” Sariak

Lehen mailako 4 sari.

Koloretan edo zuri-beltzean

Argazki solteei 125 €

Euskal Herriko sariak:

Koloretan edo zuri-beltzean, argazki solteei

Lehenengoari 125 €

Bigarrenari 110 €

Hirugarrenari 100 €

Herriko Sariak

Koloretan edo zuri-beltzean, argazki solteei

Lehenengoari..... 100 € eta garaikurra.

Bigarrenari..... 80 €

Hirugarrenari..... 50 €

8 eta 16 urte bitarteko partehartzaileen argazki onenari **saria**100€ argazkigintza materialetan.

+ INFORMAZIOA

EIBARKO UDALA

KULTURA ARLOA

PORTALEA - Bista Eder, 10 20600 Eibar

Tel. 943 708 435 kultura@eibar.eus

www.eibar.eus